kirol
...eta kitto!
831 zkia.
2013-I-11



# Urteari osasuntsu ekin

orain duzu aukera!
aek
www.aek.org
matrikula zabalik
aek
Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org

RPS 04/02

# IRAZABAL

clínica dental

• Irribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMQ, ADESLAS, SANTA LUCIA, FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

# ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

# CRF AMoSTEGi

* *Fisioterapia*
* *Min-Unitatea*
* *Kirol medikuntza*
* *Osteopatia*
* *Perineologia*
* *Ama izateko prestakuntza*





R.P.S. 28/07

Muzategi 2 behea (EIBAR) Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46

E-maila: info@crf-amostegui.com – www.crf-amostegui.com

## ASTEAN ESANAK

"Sekula ez dugu lurrikara bat noiz gertatuko den iragartzerik izango. Ikertzaileak gai dira, toki jakin batean lurrikara egon bada, tsunamia izateko arriskua ba ote dagoen zehazteko, baina ez gehiago"

(Christiane Rousseau, matematikaria)

"ETB1-ek %2,1eko ikusle kuota izan du 2012an: hamarreko bat igo da. Hala ere, 2003an baino hiru aldiz gutxiago da. ETB2 kateak, bestalde, %9,9ko ikusle kuota izan du azken urtean EAEn, 2011n baino 1,7 puntu gehiago"

(Ainhoa Arano, kazetaria)

"Ni lehendakaria banintz, osatzear nukeen gobernu berriko sailburu izendatzeko, euskaraz C1, gaztelaniaz C1 eta ingelesez B2 izatea eskatuko nieke. Eta politika-hizkuntza jarriko nuke hizkuntza-politikaren erdigunean"

(Iñaki Arruti, euskara teknikaria)

"Kapitalak eskatuta, bizitzaren erdia alferrikako gauzak ekoizteko lanean pasatzen dugu. Beste erdia ekoiztutako zabor horiek erosten edo irensten. Horra hor, nire ustetan, zaborraren arazoaren muina eta jatorria."

(Pedro Alberdi, Artaburu taldea)

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

JAI EGON / EUKI.- Egoera bat irtenbiderik gabekoa dela, edo norbaitekin alperrik dela adierazteko. *"Errazoia daukak: honekin bakarrik jai dagok".*

JAI ERABILLI.- Lanik egiten ez den eguna aipatzeko. *"Aste guztian jai darabil".*

JAI TA JORNALA.- Langileen burruken hastapenetan eibartar batek beharginen helburu nagusitzat jo zuena. Lanik egin gabe soldata jasotzea, alegia. *"Aurrera, jai ta jornala izan deigun arte!".*

# eskutitzak

### ...ETA KITTO!-REN OTARRA 175 ORDEZKO ZENBAKIARENTZAT

Saria jasotzeko 15 eguneko epea amaituta, hilaren 4az geroztik ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarra ordezko zenbakia duenarentzat izango da, Isasi okindegian saldutako 175 zenbakiarentzat hain zuzen ere. Zenbaki hori duenak datorren asteko eguaztenera arte, urtarrilaren 16ra arte izango du otarra jasotzeko aukera, ...eta kitto!-ra zuzenean etorrita (Urkizu, 11 solairuartea) edo telefonoz deituta (943200918). Epea amaituta irabazlerik agertuko ez balitz, otarraren zozketa errepikatu egingo da.

***...eta kitto! Euskara Elkartea***

### "MI BARRIO ES EL MEJOR" SAIOAN AMAÑATIK IKUSI EZ ZIRENAK

Aurreko asteko eguaztenean ETB2-ko "Mi barrio es el mejor" saioa ikusi eta gero, grabatu eta ikusi ez ziren hainbat gauza komentatu nahi ditut. Besteak beste, auzoko jaiei laguntzen dieten bizilagun eta erakundeetaz dihardut; kontzertu, bertso afari, kale antzerki, pailazo, Korrika eta bestelakoen bidez euskera bultzatzeko konpromisoaz; Amañan jaio edo bizi izan diren lagun ezagunez, hala nola Miguel Gallastegi, Justo "Asoliartza", Luis Lopetegi "Agerre", Muñoz, Jose Pérez "El Tigre", Kiko Herrera eta Andoni Amaña boxeolariez; Diego, Pizo Gómez, Oskar Artetxe foball jokalariez, Josemi eskubaloi jokalariaz; aitzindariak izan ziren eskubaloiko neskez eta Pablo Aranzeta euren entrenatzaileaz; ETBn errealizadorea eta pelota eta txirrindularitza erretransmisioetan berritzaile izandako "Agerre" Lopetegiren semeaz; gimnasia erritmikoko neskez; Mario Onaindiaz; Miguel de los Toyos eta bere aita Jose Luisez; Eroski eta MCC-ko bultzatzaile eta presidente izandako Antonio Canceloz; Javi Zuazo eta Lagun Taldeko bere lagunen erabateko entregaz; Irati eta Biziminaz; eta aipatu barik lagako nituen beste hainbatez, Alfa, Lambretta, Star, Orbea, GAC eta beste toki batzuetan egindako beharrarekin Amaña eta Eibar handiagoak egiten lagundu duten pertsonaia anonimo guztiak ahaztu barik.

***Jesus Mª Olmedo Nazabal "Kata"***

### AMAÑAKO OTARREN ZENBAKI IRABAZLEAK

Urtarrilaren 8ko eta 9ko ONCEko zenbaki irabazleekin bat zetozen zenbakidun jabeendako izango dira Amañako Jaietako azken zozketaren sariak. Urtarrilaren 8an 4.322 zenbakia irten zen saritua eta 9an, bestalde, 4.678 zenbakia.

***Amañako Jai Batzordea***


...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.000 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

kutxa gizarte ekintza

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*



## Guaiak Astelenan segiduko dau

**Gabonak atzian laga dittugu, baiña Guai** Gabonetako parkiak zapatuetan martxan segiduko dau aurten apirillera arte. Egunotan moduan, Astelena frontoian egongo da zabalik urtarrillaren 12, 19 eta 26xan, otsaillaren 2, 9 eta 23an, martxuaren 2, 9, 16 eta 23an eta apirillaren 6, 13 eta 20xan, goizez 11.00etatik 14.00xetara eta arratsaldez, barriz, 17.00etatik 20.30xetara.

## Informaziño teknologixen gaiñeko ikastarua

**Informaziño teknologixen (IKT-xen) abantaillak** ezagutzera emoteko asmuarekin, Debabarreneko autonomo eta enpresa txiki eta ertaiñeri zuzendutako lan-saio bi egingo dira Debegesan datozen bi astelehenetan (hillaren 14an eta 21ian). Proiektua Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikorako eta Lehiakortasunerako Saillak bultzatu dau, Debegesarekin batera, SPRIren Barrikuntza eta Teknologixa arluaren bittartez eta, horri esker, eskualdeko autonomo eta 10 behargin baiño gitxiagoko enpresak euren negozixuetan 2.0 tresnak erabiltzen ikasteko aukeria izango dabe, duan. Parte-hartzailliak IKTei buruzko aholkularitza jasoko dabe eta lansaiuetan ikasittakua lagungarrixa izango da euren negozixuak interneten kokatzeko, bezeruak eta salmentak haunditzeko, denbora aurrezteko, kostuak gitxitzeko eta euren negozixuen kudeaketia hobetzeko, bestiak beste. Saio bixak Eibarko KZ Gunian eskinduko dira (Portalean), 14.00xetatik 16.00etara. Parte hartzeko interesa dakanak izena emon biharko dau ekintzaile@debegesa.com helbidera idatzitta edo 943 82 01 10 (Vanesa Hortas) telefono zenbakira deittuta.




## Saharako kanpamenduetako errefuxiatueri laguntzen

**Eibar-Sahara alkartiak aditzera emon** dabenez, aurten be martxan dago Saharako errefuxiatueri laguntasuna emoteko janarixa batzeko kanpaiña. Saharar Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkartiak antolatutako "Sahararen Aldeko 9. Euskal Karabana: Piztu itxaropena" kanpaiñaren helburu nagusixa Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuak elikagaixetan dittuen premiñak asetzia da eta bihar dittuen produktuak Eibar, Elgoibar eta Ermuko supermerkatu gehixenetan jasotzen dihardue. Betiko moduan, gehixen eskatzen dittuenak arroza, pasta, lekaleak, azukria eta hegaluzia zein sardiñak (olixotan) dira, konpresekin batera. Lagundu nahi dabenak hillaren 31ra arte eukiko dau aukeria. Diruz laguntzeko aukeria be badago, Euskadiko Kutxan zabalik daguan 3035 0080 94 0800054177 kontu korrontian dirua sartuta. Informaziño gehixagorako 619029648 telefono zenbakira deittu leike. Horrez gaiñ, azken asteburuetan Untzagan eta Estaziño kalian izan dira Eibar-Saharako alkartekuak, bigarren eskuko liburuak saltzen eta bertatik lortutako dirua be errefuxiatueri bidaliko detse.











## Bilduk U12 Bilbora juateko dei egin dau



**Eibarren EH Bildu osatzen daben alderdixetako ordezkarixak** prentsaurrekua emon eben martitzenian, bixar Herrirak deittuta presuen eskubidien alde Bilbon egingo dan manifestaziñuarekin bat egitten dabela adierazi eta herrittarrak bertara juatera animatzeko: *"Hamen bildu garan Eibarko ordezkari politikuak bat egitten dogu Herrira mugimenduak euskal preso eta iheslarixen eskubidien defentsan egitten dittuen aldarrixekin. Horregaittik herrittarreri dei egitten detsagu bixar Bilbon egingo dan manifestaziñuan parte hartzera. Une latz hónetan ez dittugu ahaztu nahi salbuespen egoera hori bizi daben eibartarrak, Mikel Zarrabe, Ibon Muñoa eta herrittik kanpora ihesian juan bihar izan dabenak. Eurekin eta gertukuekin gure alkartasun osua adierazi nahi dogu".*

"Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" goiburuari jarraittuko detsan manifestaziñua bixar zapatua Bilboko Casillatik abiatuko da 17.30xetan eta Eibartik bertara juateko autobusak 15.30xetatik aurrera urtengo dira Ego-Gaiñetik (izena emoteko Depor, Buenos Aires edo Karrika tabernetara juan bihar da).



## Gureak-ekuen bazkarixa Auzokuak gonbidauta

**Edozer, Bekuak, Dorrepe, Erdi Bana, Urkusu Gain, Jaiki eta Denon Sahatsa** soziedadiak osatzen daben Auzokoak alkartekuak 1981az geroztik urtero bazkarixa emoten detse Gureak lantegi babestuetako bihargiñ eta begiralieri eta bixar be halan egingo dabe, 14.00xetan Erdi Bana soziedadian. Eibarko Gureak lantegixan 140 bihargin baiño gehixago dagoz eta daneri jaten emoteko bazkarixa preparatziaz aparte, alkarte eta bestelako laguntzailliak emondakueri esker juaten diran guztieri oparixak banatzen detsez eta dantzaldixa be eukitzen dabe. Holako planarekin, Gureak-eko bihargiñendako jai egun haundixa izan ohi da urteroko zita, erregular!

## autuan



### URKIKO GABON ZOZKETIA

**Urki taldiaren Gabonetako zozketan sarixa jasoko daben zenbakixak hónetxek dira: 0237 (EVIAk oparitutako ur-azpiko arrantzarako ekipua), 1.805 (Eroski Cityk oparitutako Gabonetako lotea) eta 2.139 (ANDIA harategixak oparitutako urdaiazpikua). Oindiok ez da irabazlerik agertu eta, horregaittik, etxian txartelak dittueneri ondo begiratzeko eskatu nahi detse antolatzailliak.**

### GABONETAKO LOTERIXAK

**Klub Deportiboaren Gabonetako loterixaren zenbakixak (33.868) sarixa jaso dau, 4 euro txartle bakotxeko. Kobratzeko Euskadiko Kutxaren edozein bulegora juan leike. Eta Eibarko EAJ-ren loterixia, barriz, alderdixaren buleguan bertan kobrau leike (Ego-Gain, 1. 1. D) astelehenetik barixakura, 10.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 19.00etara.**





KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

**Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian**

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)

asteko
**25,64**
datua

eurotan dago hillian gehixenez Gipuzkuako autobidietako erabiltzailliak ordainduko daben mugia. Abenduan sartu zan indarrian neurrixa eta beherapen hori egitteko biharrezkua da T Bide deskontuduna izatia. Hillian 100 € arte aurreztu leike tarifa horregaz.

## Alegaziñua Mankomunidadiaren aurrekontuari



**Maider Zubikarai Debako alkatiak**, Sonia Garcia Mendaroko alkatiak, Mila Mondragón Mallabiko alkatiak eta Jaione Peña Mutrikuko zinegotzixak, lauak Bilduko ordezkarixak, prentsaurrekua emon eben aurreko asteko barixakuan Debabarreneko Mankomunidadia osatzen daben 8 udalerrixetatik 4 ados egon barik aurrekontua onartu dalako. Agerraldixan *"gardentasun falta"* salatu eben eta, euren berbetan, *"Mankomunidadiaren gobernu taldiak abenduaren 27 eta 28xan helarazi zeskun 2013ko aurrekontuen gaiñeko dokumentaziñua, urtarrillaren 2xan onartzia proposatuta. Dokumentaziñua aztertzeko denpora gitxi eguala ikusitta, eskualdeko 4 udalerrik idatzixa aurkeztu genduan, horretarako 15 eguneko epia eskatzen, baiña ez genduan erantzunik jaso aurrekontua onartu zan batzarraren egunera arte eta han eskubide hori ukatu zeskuen. Horren aurrian, gure udalerrixetako 6 ordezkarixok onarpenaren kontra egin genduan"*. Gipuzkuan gitxien birziklatzen daben mankomunidadia guria dala ikusitta, zabor eta hondakiñak murriztiaren aldeko neurrixak proposatzeko biharrian jardun dabela gaiñeratu eben, *"baiña neurrixak gauzatzeko trabak kontaeziñak izan dira"*. Gauzak holan, 2013ko aurrekontueri alegaziñua ipintzeko erabagixa hartu dabela azaldu eben, *"aurrekontuak onartzeko prozeduran foru agindua bete ez izanagaittik"*.



## Eibart azokako zozketak

**Eibart Eibarko artisauen alkartiak** Gabonetarako zozketa antolatu eban eta, azaldu dabenez, *"zenbaki sarituak berez Gabonetako loterixarekin bat egin bihar eban, baiña zenbaki horrek saldutakuen artian ez egotian, zozketia saldutako zenbakixekin egin genduan azkenian"*. Zozketan saritutako zenbakixak eta irabazliak hónetxek izan dira: 1. sarixa (artisauen produktuekin osatutako otarra) Jone Larraurik eruan dau (2.200 zenbakixarekin) eta 2. sarixa (Gabonetako Artisau Azokan gastatzeko 60 euroko txartela) Alex Ariznabarretak (2.492 zenbakixarekin). Bestalde, Azokan zeozer erosi dabenen artian Artola jatetxian bazkarixa edo afarixa zozketatu dabe eta horren irabazlia Ione Beobide izan da. Antolatzailliak irabazliak zoriondu nahi dittue eta, horrekin batera, Artisau Azokara gerturatutako guztieri eskerrak emon nahi detse.

## Hirugarren greba eguna bete dabe Alfakuak

**Gaur aste honetako hirugarren greba eguna** bete dabe Alfako bihargiñak, enpresako zuzendaritzak planteatzen dittuan kaleratzien kontra protesta egitteko: Eibarko Alfa Hogar enpresan, Alfalanen eta Mecanicas Mallabia lantokixan 87 lanpostu kendu nahi dittuzte lan-erregulaziñoko txostenarekin. Gauzak holan, aste honetarako egun osoko hiru lanuzte egin dittue: astelehenian Untzagatik manifestaziño jendetsua urten zan eta eguaztenian, barriz, hartzekodunen lehiaketan daguan enpresako bihargiñak Bilboraiño juan ziran, administratzaillien bulego parian eta Kutxabanken protesta egitteko. Gaur eguardirako atzera be manifestaziñua eguan deittuta.





# Mª CARMEN GURIDI OLALDE

(2012-XII-14AN HIL ZEN, 85 URTEREKIN)

*"Amama, beti kementsu eta alaia: zure maitasuna, gure indarra.*

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

gure ikasleen ahotan

p u b l i e r r e p o r t a j e a

# "Alde praktikoa asko lantzen delako aukeratu nuen MONDRAGON UNIBERTSITATEA"

**Itsasne Landaburu**, 20 urte, eibartarra. Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduko hirugarren kurtsoa ikasten dihardu MONDRAGON UNIBERTSITATEAn.

**- Zergatik aukeratu zenuen Industria Elektronikako Ingeniaritza Gradua? Eta zergatik MUn?**
Betidanik gustoko izan dut Ingeniaritzaren arloa eta, ate irekietara joan nintzenean, Elektronikako proiektuak gustatu zitzaizkidan. Alde praktikoa asko lantzen zela entzunda neukan; horregatik MUn ikastea erabaki nuen.

**- Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**
Positiboa izan da eta baita gogorra ere. Egunero lan esfortzu handia suposatzen du, batez ere proiektu garaian, baina ikaskideen arteko harremanak eta elkar laguntzak arinagoa izaten laguntzen du.

**- Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**
Ebaluazio jarraian oinarritutako metodologia da. Lanak, praktikak eta kontrol puntuak egiten ditugu urte guztian zehar. Beraz, nahiz eta egunero lan gehiago egin, arinagoa da lana horrela eramatea.

**- Alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio?**
Bai. Teoria emateaz gain, seihileko bakoitzaren bukaeran proiektu bat egiten dugu, azkenengo emaitzetan nahiko pisu daukatena.

***"Ebaluazio jarraian oinarritutako metodologia erabiltzen dugu. Lanak, praktikak eta kontrol puntuak urte guztian zehar egiten ditugu"***



**- MUtik zer da gehien gustatzen zaizuna?**
Gehien gustatzen zaidana horixe bera da: praktikak egiteko aukera. Teorikoki ikasi duzuna fisikoki ikustea. Zuk zeuk irakasleen laguntzarekin proiektu bat aurrera eramatea motibagarria da, nire ustez.

**- Eta zerbait hobetzeko?**
Noizbehinka inguruko enpresak bisitatzea ondo egongo litzateke, Elektronikaren aplikazio guztiak ezagutzeko.

**- Badakizu non egingo dituzun praktikak edota kurtso amaierako proiektua?**
Hirugarren mailan ez dago unibertsitatetik kanpo proiektua egiteko aukerarik; baina, nahi izanez gero, lana eta ikasketak partekatzeko aukera dago inguruko enpresetan. Azkenengo kurtsoan Frantziara joateko eta bertan proiektua egiteko asmoa daukat.

**- Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**
Gradua amaitu eta gero, masterra egiteko asmoa daukat, Elektronikari buruzko jakintza gehiago eskuratzeko.

DEBABARRENEKO DESJABETZEAK STOP

# “Gure esku dago bankukraziari aurre egitea; mugi gaitezen”


Itoitz García-Antón (ezkerretik lehena) Debabarreneko Desjabetzeak Stop elkarteko beste ordezkari batzuekin.

Abenduaren 15ean aurkeztu zen Debabeheko Kaleratzeak Stop Desahucios plataforma irekia. Krisia hasi zenetik, 400.000 izan dira dagoeneko estatu mailako gauzatze hipotekarioak; Euskadin 10 eta 12 bitartean izaten dira egunero, horietako bizpahiru Gipuzkoan. Debabarrenan ere hainbat kasu egon dira, ezagutzera eman izan ez arren. Plataforma hiritarren proposamenak hilabete honetan aurkeztuko dituzte Herri Ekimenen Legegilean, honakoak eskatuz: **etxebizitza ordainetan ematea atzeraeraginezko ondorioekin, kaleratzeak bertan behera geratzea eta alokairu soziala**. Hori aprobetxatuz, Itoitz García-Antón plataformako partaidearekin egin dugu elkarrizketa. Eurekin harremanetan jartzeko, bestalde, honakoak dira kontaktuak: **stopdesahuciosbajodeba@gmail.com** eta **627-934675** telefono zenbakia.

***- Zelan joan zen aurkezpena? Zein balorazio egiten duzue?***

Elkarte horizontala gara, eta asanbleariοa aldi berean. Horregatik, sentsazio onarekin irten ginen gure aurkezpen bileratik: 30 lagun inguru bildu ginen, askoz gutxiago etorriko zirela pentsatzen genuenean.

***- Orduz geroztik, zein aktibitatetan zentratu zarete?***

Gure artean antolatzeaz, batez ere. Horrez gain, maiatzean egin genuen sinadura-bilketari eutsi genion berriro ere eta azken zapatuan, urtarrilaren 5ean, egindakoan agortu egin zitzaizkigun genituen paperak.

***- Epe laburrera, zeintzuk dira zuen proiektuak?***

Orain, hilaren erdialdean aurkeztuko ditugu batutako sinadurak Espainiako Kongresuan eta hor erabaki beharko dute lege bihurtu edo ez. Onartzen badute, garaipena izango da. Ez badute halakorik egiten, erretratatu egingo dira. Hurrengoko hauteskundeetan kontuan hartuko dugulakoan gaude. Arazoa, dena dela, hori baino larriagoa da.

***- Erakundeetatik zelako erantzuna jaso duzue?***

Aipatutako bileran Eibarko alkatea izan zen eta, argudiatu zutenez, eurengana inork ez zuela jo esan ziguten. Baina izan dira herriak euren alkatetzatik desjabetzeak agindu dituztenen banketxeen aurkako neurriak hartu dituztenak, ez gure eskualdean preseski.

> “800.000 sinaduratik gora aurkeztuko ditugu hilabete honetan Kongresuan”

***- Eskualdeko daturik baditutzue? Zailtasunak lortzeko?***

Ez dira datu ofizialik kaleratzen. Baina **justicia.net** orrian dsjabetzeak eta subastak ikusi daitezke. Esaterako, elkartea osatzen dugunon erdia kaltetuak dira. Eibarren hilero hiru bat desjabetze izango dira eta kopuru hori handitzen joatea da normalena, subsidioak-eta desagertzen doazen neurrian. Arazoa ez da zenbat dauden, baizik eta zenbat izango diren.

***- Zuengana jotzen dutenei begira, zein arazo da gehien errepikatzen dena?***

Jendeari dagoen egoera onartzea kostatzen zaio, batez ere; eta guregana jotzen du beste erremediorik ez duenean. Etxea galtzeaz gain, berandutze-interesei eta juizioen kosteei aurre egin behar izaten diete. Hipotekadunak gaur egungo esklaboak dira.

***- Komunikabideetan euren jarrera aldatuko zutela jakitera eman zutenetik, hitza bete dute banketxeek?***

Kutxabank-ek ez du esandakoa bete. Gainera, desjabetzeak atzeratzearekin ez dugu gauza handirik aurreratzen, berandutze-interesak gehitzen badoaz behintzat. Orain igual ez dizute etxetik botako, baina bai hemendik urte bira. Kriminalizazio prozesua da, ezin duenari egiten zaiona: ez



**IÑAKI ALTUNA ORMAETXEA “MALATU”**

*2012ko abenduaren 30ean hil zen, 64 urterekin*

**Familiaren izenean, eskerrik beroena**
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta ekitaldi zibilera joan zinetenoi.





*Casino Artista Eibarrés-en egindako aurkezpen ekitaldian 30 bat lagun inguru bildu ziren.*

nahi ez duenari, ezin ahal duenari baino.

***- Hilabete honetan sartuko duzue Herri Ekimen Legegilea Parlamentuan. Sinadura bilketa ondo joan da, ezta?***

500.000 sinadura jaso behar genituen eta 800.000 inguru jaso ditugu dagoeneko. Jendeak ondo erantzun du.

***- Hemengo "abusua" beste inon ez da gertatzen, ezta? Hori dela-eta, Europako Batasunetik etorri daiteke bide honetatik irtetzeko neurria?***

Beste herrialdeetan ez dizute azkeneraino odol-hustutzen: AEBetan, esaterako, giltzak bueltatuta kitatzen duzu zorra. Baina Europar Batasunak ez du hau konponduko; izatekotan, europearrak izango dira irteera duina lortuko dutenak.

***- Epaile batzuk ere aurre egin diote gaur egungo legeriari...***

Bai, baina behe mailakoak mugitu dira. Justizian agintzen dutenak mugitzen ez diren bitartean, jai daukagu. Azkenik, soluzioa guztiok mugitzetik etorriko da, manifestazioak egitetik, eta etxean geratzen direnek botoa ematera joaten direnean.

***- Desjabetze prozesuak azkarregi joaten dira, kaltetua ezustean harrapatzeraino?***

Hiru kuota ordaindu barik lagatzen badituzu, bankuek eskubide osoa dute prozesua martxan jartzeko. Legeak bankuen mesederako eginda daude: bankukrazia batean bizi gara. Indarra egiterakoan ere, Andaluzia aldean-eta hemen baino mentalizatuago daude; horregatik laga dituzte hainbat desjabetze bertan behera.

***- Hemen jendeak ez du oraindik arrisku horren kontzientziarik hartu?***

Orain hasi da jabetzen. Gaur egun ikusten da etxea erosi baino lehen alokatzera jotzen dutela gero eta gehiago. Mutur aurrean duzuna ikustea besterik ez dago: hilean 3.000 euro irabaztetik ezer ez irabaztera pasa zaitezke. Inkonsziente hutsa ez bazara behintzat... badakizu zer ezin duzun egin.

***- Jendea, baina, solidarioa da?***

Jendea bai. Gertatzen dena da komunikabideek ezkutatu egiten dutela errealitatea. Azken hauek euren ugazabentzat dihardute lanean eta jendea berandu enteratzen da arazoaz.

***- Zelan egin aurre egoera horri? Zelan handitu kontzientziazio maila?***

Gehiago irakurriz eta aurka eginez. Beldur barik: guk atera behar ditugu babak eltzetik, gobernuak ez du egingo eta. Lehen edozein izan zitekeen kaltetua, orain batez ere informatzen ez dena. Bankua negozioa da eta gutako bakoitza merkantzia besterik ez. Nahi dutena saltzen digute, baina ez berez jendea gaiztoa delako, baizik-eta sistema delako perbertsoa. Eta kutxak ere bankuen bidetik doaz.


G a s o l e o   b a n a k e t a
Baita kalefakzio eta ur berogailuentzat ere
estación de servicio kantoi eibar
GASOLINDEGIA
Otaola etorb., 13 - Bis
Tel. 943 207374 Fax. 943 207130
Gauez zerbitzu automatikoa

Tintalur
Kartutxo eta Toner Birziklaia eta Salmenta
Errebal, 12 - behea
Tel./Faxa: 943 531 809
tintalur@gmail.com www.tintalur.com

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27
Bulegoa:
24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 82 15 39 · www.funeuskadi.com
Grupo Funeuskadi
· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao ·
· Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe ·
· Espinosa de los Monteros ·




# Eibarko XVIII. KIROL SARIAK

**2012-XII-31**




Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien edizio berria egin zen Portaleko areto nagusian. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeak egiten duten lan nekaezina saritzeko. 26 izan ziren saria jaso zuten kirolariak, bakoitzak modalitate bat ordezkatuz eta, horiez gain, Euskera eta Sustapen sariak ere eman ziren. Sari Berezia, bestalde, orain dela hilabete batzuk hildako Jaime Barriusorentzat izan zen, Mikel bere semeak jaso zuena. Eskerrik asko bertaratutako guztiei eskainitako berotasunarengatik eta baita urte osoan zehar kirolaren alde gure herrian diharduten klub eta elkarte guztiei ere.



Sari Berezia
JAIME BARRIUSO



Euskera Saria
ATLETISMO TALDEA



Sustapena
SOMOS ASESORES



Areto-Foballa
ALEX ALONSO



Arku Tiraketa
JON ANDER MAYORAL



Atletismoa
AINHOA AZPIAZU



Automobilismoa
RUBEN MORO



Errugbia
OSCAR LOPEZ DE GEREÑU



Eskia
AMAIA BUENO



Eskubaloia
UNAI IBAIBARRIAGA


Fitness
IÑAKI MATEOS


Foballa
JON ERRASTI


Gimnasia Erritmikoa
IPURUAKO JUBENIL TALDEA


Golfa
MAIER FERNANDEZ


Herri Kirolak
JOSE ANTONIO ARRILLAGA


Hiru Txirlo
EUSKADIKO SELEKZIOA - ASOLA BERRI


Igeriketa
MARTIN AIZPIRI


Judoa
NEKANE MUGURUZA


Mendia
JOSE ENRIQUE GONZALEZ


Pilota
IKER NARBAIZA


Saskibaloia
GAIZKA HERNANDEZ


Squash
ANDONI ETXEBARRIA


Tenisa
IKER EZKERRA


Tiro olinpikoa
JOSE MIGUEL SOLAS


Triatloia
JUANJO ROMERO


Txirrindularitza
JOKIN BERGARA


Waterpoloa
TXOMIN LETURIAGA


Wu-Shu
VICENTE TERCERO


Xakea
JOSE ANTONIO GARRIDO


Ruis de Galarretak Athletic-era egin du jauzi.


Foru Aldundiak Patxi Usobiaga saritu zuen.


C. Lassalle Euskadiko taekwondo taldean.


Eibar Eskubaloiko harrobikoak selekzioan.


Hierros Anetxe Eibar Rugbi Taldeak mailaz igotzea lortu zuen.


Deportiboko eskiatzaileak Euskadiko txapeldun izan ziren Belaguan.


Javi González nagusitu zen berriro Casinoko billar txapelketan.


Ttatt gimnasioko ordezkariek urrezko lau domina lortu zuten Espainiako wu-shu txapelketan.


Somos Eibar Eskubaloiak denboraldiko partidu guztiak irabazi zituen eta mailaz igo.


Deporreko mendi taldekoek Red Cométe ibilaldia egin ondoren, sagardotegia bisitatu zuten.


Aurten ere goi mailan jardun dute Ipurua gimnasia erritmikakoek, hainbat txapelketa irabaziz.


190 parte-hartzaile (14 emakume) izan zituen Eibarko 21. Duatloiak.



Altuna, Ziaran eta López sarituta triatloian.


Ruibal taldea mailaz igo zen saskibaloian.


Iñaki Bolinaga Arrateren presidentea hil zen.


Agarre-Azpiko idien desafioa Etxebarrin.


Koskor taldea foball-zaletuko sari guztien jabe egin zen azken denboraldian.


Asola-Berrik 50. urteurreneko egun handia bizi izan zuen martxoaren 18an.


Euskal Herriko eta Espainiako Itzulietako etapa bana amaitu ziren Arraten.


Euskal Herriko Zeharkaldia egiten hasi ziren Deporreko mendizaleak, 19 etapetan.


Cuevas laugarrena izan zen 100 kilometroko Mundialean Donostiako maratoia irabazi aurretik.


Urkiko neskek, 22 partidutik 22ak irabazita, marka berria ezarri zuten.


Iosu Elejalde onena izan zen bere mailan Apuko-Xtrem ultra-rail proban.


Nekane Muguruza judoka Espainiako txapelduna izan zen hirugarren aldiz.

# OSASUN GIDA

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**
HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57
**AMAÑA**
HORTZ KLINIKA

**ARAT Hortz Klinika**
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA
Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura
943 20 18 51

R.P.S. 149/12
**bista eder**
Irribarreak gazdetu egiten gaitu
Inplante eta Hortz-Estetikan adituak
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.
**calbetón** hagin klinika
Tel. / Faxa: 943 03 33 03
Fermin Calbeton, 6 - 1. A
clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk.
Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Jesus Mª Gastesi - Ane Gastesi
Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia / PADI
Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02
**IRAZABAL**
clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

hortz-klinika
**B. IZAGIRRE**
clínica dental
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia
Ortodontzia ume eta helduentzat
**Mª Dolores Olaizola Doktorea**
EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05
**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**
hortz-klinika
Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak
Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**
- Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- Min-Unitatea
- Inkontinentzia urinarioak
- Kirol medikuntza
- Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**
clínica estética
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
KIRURGIA ESTETIKOA
Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapia


Ane Mendia
970 Kolegiatu zbkia.
Arragueta, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com
FISIOTERAPIA ZENTRUA

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58


## Okulistak


Centro de Oftalmología Avanzada
JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com


## Podologoak


- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
943 12 14 93

Bidebarrieta, 48
EIBAR
943 203050
Erdiko kale 54
ARRASATE
943, 799746
PODOLOGOA
Erdiko klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO
Iñaki Rivero Zabaleta
Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41


## Psikologoak


AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807
Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua
- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
Ana Artamendi
- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa
T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
Oscar Mondragon Lili
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023


## Radiologia


MADINA RADIOLOGIA
– Mamografiak
– Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
– Hortz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)
TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857


**Hemen zure tokia izan nahi baduzu:**
**deitu 943-206776 telefono zenbakira**


Bedia eta Yarza gimnastak Euskal Ligan.


Bihurriren laugarren munduko marka.


Olaitz Rodríguez onena izan zen Ezozian.


Euskadiko txapela Leire Olaberriarentzat.


Felix Ormaetxea "pampo" gogoan izan zuten Aixolako urtegiaren proban.


Aitor Zubillaga nagusitu zen Arrateko Armeria Eskolako sari nagusian.


Klub Deportiboko pilota eskolakoek afizionatu mailako txapelketetan jardun izan dute.


Eibar Golf - Pitch & Putt taldeak aurkezpena egin zuen Sanjuanen inguruan.


Bi domina ekarri zituzten Eibarrera Euskadiko fitness txapelketatik.


Infantil mailako waterpolistek Gipuzkoako Liga eskuratu zuten.


Euskal Jaialdiaren edizio berria jokatu zen Sanjuanetan.


Leioako Altzaga taldeak irabazi zuen Eibarko Hiria xake torneoa.



Aitor González onena afizionatuen artean.



Ander Romarate Joko Olinpikoetan izan zen.



Fernando Errekalderen marka Pirinioetan.



Larrauri-Ruiz txapeldun Kluben Artekoan.



Aitor Arakistain nagusi izan da Arlabaneko eta Urrakiko probetan.



56 parte-hartzaile izan ziren XVII. Simon Aldazabal sarian, euretatik 48 eibartar.



Jose Antonio Egurrola “Mendigoitxik” egindako apustua irabazi zuen Arrateko harriarekin.



MAQcenter areto-foballeko talde berria sortu du Debabarrenak gure herrian.



Aspek “Egizu jokaldia” plana eskaini die pilotazaleei, egun-pasa egiteko pilota jaialdiarekin.



106 eibartar izan ziren ospe handiko Behobia-Donostia proban.



435 judoka izan ziren Ipuruan jokatutako San Andres torneoan.



Eibar Foball Taldeak Athletic kaleratu zuen Kopatik San Mamesen jokatutako partiduan.

# berriak

## ESKUBALOIA

**Jubenil mailako Eibar Eskubaloiko jokalari bi laugarren postuan sailkatu ziren Euskadiko selekzioarekin Vigon jokatutako elkarte autonomoen arteko txapelketan. Aitor Oregi eta Mikel Guerraren taldeak euren multzoko lider moduan amaitu zuen lehen fasea, Aragoi, Errioxa eta Nafarroaren aurretik, eta finalaurdenetan Gaztela-Leon kanporatu zuten. Finalerdietan, baina, Katalunia ahalguztidunarekin galdu zuten eta, 3. eta 4. posturako lehian, Galiziako anfitrioiekin 24-22.**

## XAKEA

**Hiru hilabete iraungo ditu Gipuzkoako taldekako ligak eta Klub Deportiboak, aurreko denboraldietan moduan, bi talderekin hartuko du parte: Gorengo mailan jokatuko du lehen taldeak eta 3. mailan besteak. Biei ere etxean jokatzea egokitu zaie lehenengo jardunaldi horretan: gorengo mailakoak Donostiako Fortuna hartuko du Deporren eta 3. mailakoak Legazpiko Santikutz.**



## Urkon bilduta urtea kirolari hasteko

**Eguraldiak ere nahiko ondo erantzun zuen** goiz aldean eta tartea eskaini zien Urko bisitatzera animatu ziren guztiei. Ixuan sabela ezozer berotzeko aukera ere izan zen, urtero ...eta kitto!-k eta Klub Deportiboko mendi batzordeak elkarren artean antolatzen duten hamarretakoari esker. Ez zen kirolaren inguruko girorik falta izan bezperan ere, Gabon Zahar egunean, arratsaldean Aixolako urtegiaren inguruan jokatutako XXII. San Silbestrean. Asko izan ziren, bakoitza bere abiaduran, urtea "kiroltasunez" amaitu zutenak.

## Urkiko neskak nagusi Almen torneoan



**Hirugarren aldiz jarraian irabazi dute** eibartarrek Aretxabaletan Gabonen bueltan jokatzen den torneoa. Lazkaori, Aloña Mendiri eta Arizmendi Mondragoni irabazi ondoren, finalean Bergara baino gehiago izan ziren eta, Olatzek, Alainek, Julenek, Iratik eta Amaiak lortutako golei esker, 5-0 emaitzarekin borobildu zuten egindako torneoa.

## Aimar Olaizola berriro Astelenan

**Asegarcekoa izanda gutxitan jokatzen du Katedralean** gaur egungo pilotari handienak; baina, binakako txapelketa aprobetxatuz, denbora gutxian bitan ikusteko aukera izango dute Astelenako pilotazaleek. Oraingoan berak eta Ibai Zabalak osatutako bikoteak Xalak eta Barriolak osatutakoari egingo dio aurre domekako jaialdi nagusian. Aurretik Aritz Lasa eta Laskurainek Ezkurdia eta Peñagarikanori egingo diete aurre eta, amaitzeko, Gorka eta Ceciliok Mendizabal III.a eta Merino I.ari.



*Unamunzaga aurrelaria.*

**Unamunzaga-Bengoetxea Euskal Ligan**

Eibarko bikoteak bihar hasiko du Tolosako Beotibarrean lan asko eskatuko dion liga, eurekin batera Euskal Herriko beste hamabost bikote onenak lehiatuko baitira txapelaren bila. 1. mailatik Ohorezko mailara igotzea lortu berri dute eibartarrek.

Gaur, bestalde, 19.15etan hasita, Klub Deportiboko Ibarluzea eta Iriondo infantilek Tolosako Aurrera-Zaiazekoei egingo diete aurre Astelenan.



## Txirrindulari Elkarteak presidente berria du

**Moises Artaetxebarriak hartu du** Javier Ziaranen lekukoa, azken honek 11 urte egin eta gero Eibarko Txirrindulari Elkartearen presidente karguan. Hautagai bakarra izan zen Artaetxebarria eta guztien adostasuna jaso zuen. Berarekin osatuko dute zuzendaritza Juan Carlos Soriak (presidenteorde), Jon Kruzelaegik (diruzaina), Oihane Kruzelaegik (idazkaria) eta Enekoitz Lazarobasterrek (lasterketa zuzendaria).

# 2012/2013

## EIBAR FUTBOL TALDEA

# Aupa Eibar!



*Eibar KE-k urte bikaina opa dizue eta 2013a igoeraren urtea izan dadila*

## Gazta-dastaketa saioa

**Datorren otsailaren 12rako (martitzena)** gazta-dastaketa saioa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Illunabarrian programaren barruan, Ramon Lizeaga gaztagilearen eskutik. Antzinako errezetak berreskuratzen aditua den Lizeagak 8 gazta desberdin egiten ditu gaur egun antzinako errezetak erabiliz. Eibarrera 20 bat gazta ekarriko ditu dastatzeko. Izen-ematea urtarrilaren 22an zabalduko da eta otsailaren 5ean itxi. ...eta kitto!-ko bazkideek 5 euro ordainduko dute eta bazkide ez direnek 6 euro. Izena emateko ...eta kitto!-tik pasatu (Urkizu 11, solairuartea) edo bertara deitu (943200918). Dastaketa arratsaldeko 19.00etatik aurrera izango da ...eta kitto!-n bertan.





## Cobra taldearen “Covered” lan berria kalean

**Abenduaz geroztik kalean da "Covered"**, Cobra taldearen lan berria. Soinu banda ezagunen bertsioekin osatutako diskoak, besteak beste, "Twin Peaks", "The Godfather" edo "2001: a space odyssey" modukoak bestelako estilo eta erritmoari jarraituta entzuteko aukera paregabea eskaintzen du. Egunotan disko berria ezagutzera emateko zuzeneko emanaldiak eskaintzen dihardute han eta hemen. Atzo bertan Bilboko Kafe Antzokian kontzertua eman zuten eta hurrengo hitzordua hilaren 18an Biarritzen daukate, Willis Drummond taldearekin batera emango duten kontzertuan. Eta otsailean Frantzian, Parisen eta Rouenen emanaldi bana lotuta daukate honezkero.



## Jendetza Errege bezperako azoka berezian

**Aurreko zapatuan Estaziño kaleko eta inguruko** kaleetakoek osatzen duten Zona 10 elkartekoek antolatutako azoka bereziak jende mordoa batu zuen. Goiz osoan kalean ipinitako postuetan saltzen zituztenak erosteko aukera izan zen, baina horrez gain antzinako argazkien erakusketa, hainbat tailer eta musika emanaldia ere izan ziren martxan. Eta, nola ez, iragarrita zegoen moduan Hiru Erregeak ere bisitan izan ziren.

## Hiru Erregeek herria zeharkatu zuten kabalgatan

**Urteroko moduan Errege Kabalgatak herriko kaleak** zeharkatu zituen hilaren 5ean Ekialdetik etorritako Hiru Erregeekin, Cielito Musika Bandak lagunduta. Aurretik, baina, ondo baino hobeto pasatu zuten Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek kiroldegian Ipurua Dantza Garaikidea, Ipurua Gimnasia Erritmika eta Eibarko Balleta taldeen dantza erakustaldian.



ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar




Martxotik ez bazatoz eta Gipuzkoan erroldatuta bazaude, interesgarria irudituko zaizu zifra hau: 25,64€/ hilean. Teleordainketaren gehieneko tarifa berria duzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik martxan jarria, AP-1ean eta AP-8an egunero ibiltzen diren milaka gipuzkoarren gastua arintzeko.

www.bidegi.net

BIDEGI

Gipuzkoa BERRIA

# laburrak



## LEO HARLEM

Hilaren 26an Coliseoan izango den Leo Harlem komikoa ikustera joateko sarreren salmenta astelehenean, hilaren 14an hasiko dela eman du jakitera Euskara-Kultura batzordeak, honako ordutegian: astelehenean 19.00etatik 20.00etara eta barixakuan 21.00etatik 22.00etara.

## 1947-KOEN LOTERIA

Urte horretan jaiotakoek jokatutako loterian buelta tokatu da eta, jasotako dirurarekin, zapatu honetan (hilaren 12an) egingo den zozketarako loteria erosi dute antolatzaileek. Biharko zozketan 56.385 zenbakiarekin jokatuko dute.

## JOSKINTZA TAILERRA

Atzo joskintza tailerra hasi zen Portalean, Ikasten elkarteak antolatuta eta datozen egunetan (hilaren 17, 24 eta 31n) jarraipena izango du, 18.00etatik 20.00etara. Seguruenik hurrengo hilabeteetan ere klaseekin jarraituko dute. josteko zaletasuna duten andra zein gizonentzat pentsatuta dago.

# Armeriari buruzko erakusketa ixtear



*Portalean dagoen erakusketak bisitari asko izan ditu.*

**Aurreko hilaz geroztik Portalean ikusgai** dagoen "Armeria Eskola atzo, gaur eta bihar" erakusketa domekara arte egongo da ikusgai, 18.30etatik 20.30etara. Beraz, oraindik ikusi ez duenak argi ibili beharko du, gaur, bihar eta etzi baino ez duelako bisitan joateko aukerarik izango. Iaz urte osoan ekitaldi ezberdinekin gogoratu zuten Armeria Eskolaren sorreraren mendeurrena eta horri agur esateko ordua ere ailegatu da. Horretarako urtarrilaren 23an 12.00etan eskolan bertan ekitaldi berezia antolatu dute: besteak beste Lehendakariaren eta Eibarko alkatearen parte-hartzea dago aurreikusita eta Goruntz abesbatzak emanaldia eskainiko du eta agurtu aurretik "Eskuadra Zaharra" museoaren inaugurazioa egingo dute.

# Koko-jantzi tailerra Gurasoak Berbetan-en



**Gurasoek euskera praktikatzeko asmoarekin** sortutako mintzapraktika taldeek saio berezia izango dute datorren barixakuan, urtarrilaren 18an. Aratosteetarako hilabete falta denean, koko-jantzi tailerra antolatu du …eta kitto! Euskara Elkarteak mintzapraktika egitasmoan diharduten guraso eta horien seme-alabentzat. Begirale baten laguntzarekin umeentzako hainbat koko-jantzi nola egin ikasteko aukera izango dute parte-hartzaileek, …eta kitto!-n bertan, arratsaldeko 17.30etatik aurrera.

# Abontzatomasetako zozketako irabazleak saria jaso du

**Abontzako Itturrixa elkarteak** Abontzatomasetan egindako zozketan 65 zenbakiarentzat izan da saria: argazkian ikusten duzuen Ainhoa Maguregik eraman du Eibarko jokalariek sinatutako kamiseta. Zorionak!






Olabarria AUTOBUSAK

BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK

Besaide, 11. ELORRIO

Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / Faxa. 94 - 623 16 47

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**


Zorionak, BEÑAT Hurtado, hillaren 2xan zortzi urte egin zenduazen-eta. Maite zaittugu. Etxeko guztien partez.


Zorionak, MARKELTXO! Urtebete egin dozu-eta hillaren 8xan. Zenbat maite zaittugun! Milla patxo zure famelixaren partez.


Zorionak, IRADI, gure printzesa!, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi-haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, JON, etxeko mutil haundixa!, astelehenian zazpi urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, ANDER, astelehenian bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, KERMAN, bixar bi urte egingo dozuzelako. Patxo potolo bat maite zaittugun guztion partez.


Zorionak, MAIALEN, gure printzesa, hillaren 3an urtetxo bat egin dozu-eta. Muxu haundi-haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, UNAI, bixar bederatzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat zure tiaren partez.


Zorionak, ANE, gure etxeko printzesa, bi urte bete dozuz-eta. Aitita, amama, tio Aitor eta tia Ane.


Ongi etorri, JULE, hillaren 4an jaixo ziñan-eta. Laztan bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, SABRINA, etzi zazpi urte beteko dozuzelako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, ALANA, hillaren 9xan bi urte bete zenduazen-eta. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, IKER, gaur hamabi urte bete dozuzelako. Eta baitta hillaren 5ian urtiak egin zittuan IÑIGOri be. Famelixaren partez.


Zorionak, EKHI eta GORKA, hillaren 3an eta 8xan urtiak bete dozuez-eta. Etxekuen partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**11n:** 22.30
**12an:** 17.00, 19.45, 22.30
**13an:** 17.00, 20.00
**14an:** 20.30

### "La parte de los ángeles"
*Zuzendaria:* Ken Loach



**(2 ARETOAN)**
**11n:** 22.30
**12an:** 17.00, 19.45, 22.30
**13an:** 17.00, 20.00
**14an:** 20.30

### "Un buen partido"
*Zuzendaria:* Gabriele Muccino



**(ANTZOKIAN)**
**11n:** 22.30
**12an:** 19.45, 22.30
**13an:** 20.00
**14an:** 20.30

### "Jack Reacher"
*Zuzendaria:* Chris McQuarrie



**(ANTZOKIAN)**
**12an:** 17.00
**13an:** 17.00

### "El alucinante mundo..."
*Zuzendaria:* Chris Butler



## BARIXAKUA 11

### GAZTELEKUA

**16.30.** "Panpina josi". Indianokua gaztelekuan.

## ZAPATUA 12

### BAZKARIA

**14.00.** Gureak lantegikoentzat bazkaria, Auzokoak elkartearen eskutik. Erdi Bana elkartean (Urkizu, 1).

### MANIFESTAZIOA

**15.30.** Bilboko manifestaziora joateko autobusaren irteera. Ego Gainetik.

### TAILERRA

**17.30.** Haurrentzako egutegi tailerra. El Corte Inglés-ean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Kaleetan Kantuz-ekoen kalejiraren hasiera. Untzagan.

## DOMEKA 13

### GAZTELEKUA

**17.00.** "Altxorraren bila". Indianokua gaztelekuan.

## ASTELEHENA 14

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo". Beheko Tokian.

## MARTITZENA 15

### IKASTEN

**10.00.** Hitzaldia: "Menorca-Bretaña (tierra de dólmenes y druidas)". Armeria Eskolan.

### JARDUNALDIA

**13.30.** Enpresarientzat jardunaldia, Negobideren eskutik. Untzaga Plaza Hotelean.

## EGUAZTENA 16

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Rescate, pequeña economía doméstica". Untzaga jubilatu etxean.

### HITZALDIA

**19.30.** "Ibilaldia Everesteko kanpo basera", Periko Iriondoren eskutik. Deporren.

## EGUENA 17

### IKASTEN

**10.30.** Urteko Batzarra (1. deialdia). Bigarren deialdia 11.00etan. Armeria Eskolan.

**18.00.** Joskintza tailerra. Portalean.

## lehiaketak

### ✔ Urtarrilaren 16ra arte

***ARATOSTEAK 2013 EIBARREN KARTEL LEHIAKETA.***
*Lanak aurkeztea eta informazioa: Pegoran.*

### ✔ Urtarrilaren 23ra arte

***ANTZEZ ARTIKULU ETA GIDOIENTZAKO XXVIII. NARRUZKO ZEZEN SARIAK.***

*Lanak aurkeztea eta informazioa: Hezkuntza Esparruan (943208444 telefonoa).*

### ✔ Otsailaren 16ra arte

***INDUSTRIA-ARGAZKILARITZA DIGITAL LEHIAKETA.***

*Lanak aurkeztea eta informazioa: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartean (Isasi, 36).*

## hildakoak

- **Mª Luisa Rodríguez Martínez.** 75 urte. 2012-XII-26.
- **Mª Cruz García Gutiérrez.** 84 urte. 2012-XII-27.
- **Luis Cuevas Mantecón.** 56 urte. 2012-XII-28.
- **Pilar Zubia Bastida.** 85 urte. 2012-XII-28.
- **Maria Txintxurreta Askasibar.** 94 urte. 2012-XII-29.
- **Iñaki Altuna Ormaetxea.** 64 urte. 2012-XII-30.
- **Mª Isabel Arizaga Bolunburu.** 64 urte. 2012-XII-30.
- **Benedicto Domínguez Olabarria.** 91 urte. 2012-XII-31.
- **Manuela Rodríguez Aizpiri.** 90 urte. 2012-XII-31.
- **Mercedes Fernández Rivera.** 83 urte. 2013-I-2.
- **Carmen Martínez Del Fresno.** 92 urte. 2013-I-2.
- **Julia Astarloa Mugerza.** 98 urte. 2013-I-2.
- **Alberto Caro Albizuri.** 80 urte. 2013-I-3.
- **Juan Gamino Calzas.** 94 urte. 2013-I-4.
- **Clemente Carmona Horrillo.** 87 urte. 2013-I-5.
- **Armando Aginaga Arriaga.** 58 urte. 2013-I-7.
- **Margarita Medina Monje.** 88 urte. 2013-I-8.

## jaiotakoak

- **Alain Zubizarreta Caballero.** 2012-XII-16.
- **Laia Gutiérrez García.** 2012-XII-21.
- **Yassin Norddine.** 2012-XII-26.
- **Oier Iraeta Mendia.** 2012-XII-29.
- **Iker Pagei Martín.** 2012-XII-29.
- **Beñat Murillo Etxaniz.** 2013-I-1.
- **Malen Murillo Etxaniz.** 2013-I-1.
- **Rayan Benslaiman Benaboud.** 2013-I-3.
- **Jule Pérez Moreira.** 2013-I-4.
- **Jon Amostegi Egaña.** 2013-I-4.

## HOROSKOPOA

### ARIES
Espero baino okerrago hasi duzu urtea, baina hurrengo egunetan gauzak hobetuko dira. Pazientzia gehiago izan.

### TAURUS
Ondo portatu da Olentzero, ezta? Ezin zara kexatu! Oso zintzoa zarelako portatu da horrela. Ez zenuen engainatuko, ezta?

### GEMINI
Urte berriarekin hitz-emate berriak datoz. Aurten beteko dituzu? Behintzat, saiatu zaitez. Laga alperrontzia izateari.

### CANCER
Zaindu zaitez! Azken aldian ez zabiltza batere ondo eta ez duzu denbora hartzen sendatzeko. Adi: txarrera joan zaitezke.

### LEO
Gogorra da urtarrila, baina zuk egiten duzu gogorragoa. Zenbat diru gastatu duzu Gabonetan? Datorrenarekin pentsa!

### VIRGO
Ez itxaron gehiago: ez duzu jasoko opari gehiagorik. Nola zara hain materialista? Ez dago gauza garrantzitsuagorik?

### LIBRA
Zure urtea izango da 2013a. Maitasun une gogoangarriak pasatuko dituzu, eta ez duzu ezer eta inor faltan botako.

### SCORPIUS
Gabonak pasa dira eta denbora gutxira... aratosteak datoz! Seguru azken unean pentsatuko duzula zein mozorro eraman.

### SAGITTARIUS
Gurasoak kezkatuta dituzu hainbeste sekreturekin. Kontatuiezu: horrela pisu handia kenduko duzu-eta gainetik.

### CAPRICORNIUS
Laga bizitza zuri-beltzean ikusteari eta emaiozu kolorea! Badakigu neguan ez dagoela kolore askorik: margotu zuk.

### AQUARIUS
Gabonetan hartutako kiloak galtzeko ordua heldu da. Jantzi zapatilak eta hasi korrika! Zuk esan zenuen egingo zenula.

### PISCIS
Urte amaiera ez da izan zuk aukeratuko zenuena. Baina ez arduratu, zuri dena bikain joango zaizu-eta! Zorte onekoa!

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## erakusketak

**✔ Urtarrilaren 13ra arte**

***"ARMERIA ESKOLA ATZO, GAUR ETA BIHAR".***
*Portalean.*

**✔ Urtarrilaren 20ra arte**

***HAREK UMIAK (GERRAKO EIBARKO UMEAK).***
*Kalean.*

**✔ Urtarrilaren 31ra arte**

***MARIA CAÑO.*** Argazkiak.
*Portalea tabernan.*

***MARIA AGIRRE.*** Argazkiak.
*Klub Deportiboan.*

***MARI SOL YABEN.*** Argazkiak.
*El Ambigú tabernan.*

***JOSE LUIS IRIGOIEN.*** Argazkiak.
*Montcada y Reixach herrian.*



## farmaziak

**✔ barixakua 11**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ *Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)*

**✔ zapatua 12**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

**✔ domeka 13**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

**✔ astelehena 14**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

**✔ martitzena 15**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

**✔ eguaztena 16**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**✔ eguena 17**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**✔ barixakua 18**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 4 | 1 | 6 | 8 |
| | | | 7 | 3 | | | 4 | |
| 9 | | | | | | | 7 | |
| 1 | | 4 | | | 2 | | | |
| | 7 | | | | | | 3 | |
| | | | 5 | | | 4 | | 1 |
| | 6 | | | | | | | 7 |
| | 8 | | | 7 | 5 | | | |
| 3 | 9 | 7 | 1 | | | | | |



AURREKOAREN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................*112*
Pegora ............................*010*
Udaletxea.........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa......*943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa .........*943 82 01 10*
KIUB ................*943 20 38 43*
Epaitegia ..........*943 03 34 00*
Iberdrola ..........*901 20 20 20*
Naturgas...........*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak ..*943 46 46 22*
Gurutze Gorria...*943 22 22 22*
Mendaro osp......*943 03 28 00*
Anbulategia .......*943 03 25 00*
Torrekua ...........*943 03 26 50*
Errepideak.........*902 11 20 88*
Ertzaintza ..........*943 53 17 00*
Eusko Tren........*902 54 32 10*
Pesa.................*902 10 12 10*
Taxiak..............*943 20 30 71*
.......................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon.....*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen ..*650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Babes ofizialeko pisua salgai Amañan. 70 m². Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.

### 1.2. Errentan

– Egongela bilatzen dut errentan. Tel. 615-303314.
– Pisua alokagai Elgetan. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Igogailua eta kalefakzioa. Dena kanpora begira. Tel. 606-083992.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Taberna baten %50 traspasoan. Aukera jornada osoko lanaldirako. Negozioa martxan. Tel. 653-021169.

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia edo marraduna, trasteroarekin, hartuko nuke alokairuan. Errekatxu, Sansaburu edo Bista Eder inguruan. Tel. 636-322725.
– Beheko lokala alokagai Ubitxan. Sarrera kaletik. 100 m². Tel. 617-688311.
– Lokala alokagai Otaola etorbidean, Unibertsitate Laboralaren ondoan. 25 m². Baita kuadrilentzat ere (ez adin txikikoak). Tel. 681-303507.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-302653.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Mutila eskaintzen da jatetxeeetan jarduteko, garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko eta gidari moduan. Tel. 698-467862.
– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile edo kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-474923.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 689-926022.
– Gizona eskaintzen da gidari moduan (nazionala, nazioartekoa eta bidaiariekin). Esperientzia handia. Tel. 697-406210.
– Gizona eskaintzen da baserriak edo etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko ospitalean zein etxean. Tel. 688-812845.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 645-557141.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-376387.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 685-375377 eta 943-257605. Jacqueline.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 688-234524.
– Gizona eskaintzen da kamarero zein sukaldari laguntzaile jarduteko. Tel. 692-332871.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 686-052084.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 605-720298.
– Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak paseatzera ateratzeko, etxeak garbitzeko eta umeak eskolara eramateko. Tel. 639-611454.
– Mutila eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko eta obretako laguntzaile moduan. Tel. 638-560617.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-230789.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 671-258740.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 632-253170.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-362251.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita orduka ere. Tel. 627-652870.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 653-156403.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-047847.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-700803.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da astebururetan edo jaiegunetan gaixoak zaintzeko. Tel. 669-179522.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 605-720298.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 686-052084.
– Gizonezkoa eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 692-332871.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko etabar. Tel. 627-162936.
– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 654-743313.

### 4.2. Langile bila

– Pertsona behar da etxeko lanak egiteko. Egunero hiru ordu. Tel. 600-625117.
– Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 648-707376.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularrak ematen ditu LH eta DBH mailakoentzat. Tel. 651-503971.

## 6. Denetarik

### 6.2. Eman

– Txakur txikia (bi hilabete) ematen da adopzioan. Tel. 676-609319 eta 943-200590.
– Katua oparitzen da. Lau urtekoa. Txerto guztiak hartuta. Tel. 636-550740.
– Bi urteko husky emea oparitzen da. Etxean egoten ohitua. Tel. 659-764487.

# Nik ❤ euskara

## Ikastaro presentzialak

ORDUTEGI ETA MAILA GUZTIAK

ZIBERGELA: ordenagailuak, internet

EGA eta HABErem titulu ofizialak
(Administrazio, Osakidetza eta Ertzaintzaren perfilen baliokideak)

4. mailako ikastaroa (EGAtik gorakoa)
astearte eta ostegunetan, 17.00etatik aurrera

**BEKAK:** *EibarkoUdalaketaHABEkdiruzlagundutakozentroa*

MATRIKULA ZABALIK

*Udal Euskaltegian* www.udaleuskaltegiak.net

**Urtarrilaren 7tik aurrera**

**Bista Eder 10 -PORTA-**

euskaltegiaeibar@telefonica.net
Telefonoa: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89








FISIOTERAPIA
ZENTRUA
Ane Mendia
970 kol. zkia.

Tecarterapia
Kirol lesioak
Masajeak
Tendinitisak
Bizkarreko minak
Esginzeak
Etxez-etxeko zerbitzua





Arragueta, 20 - behea 943 530642


UNBE
ORBEA
IGERILEKUA
PADELPISTAK
SPA
TENISPISTAK
ZORIONAK!
eta
2013.
URTE
kirolari
ON!
Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar